

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

164

AGINDUA, 2016ko abenduaren 14koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko behin-behineko langile bat kargutik kentzeko dena.

Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.2 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluan xedatua aplikatuz, kargu-uztea gauzatzen da, eta hau:

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Berrikuntza eta Nazioartekotze arloko aholkulari kargutik kentzea Itziar Epalza Urquiaga andrea (kodea: 5259; dotazioa: 1), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu kentze honek 2016ko abenduaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 14a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.